


Bikaintasuna Euskal Ikasketetan XV: Nola kontatzen dugu euskara?



Ikastaro honek egungo irakurleen eta etorkizuneko enpresen prestakuntza sendotu nahi du, eta horretarako, euskararen eta euskal kulturaren jakintza arlo ezberdinetako adituak gonbidatu ditugu, aurreko urteetako bide beretik.

Uzt. 09 2025

Kod. L04-25

Mod.:

Online zuzenean Aurrez aurrekoa

Edizioa

2025

Jarduera mota

Uda Ikastaroa

Data

Uzt. 09 2025

Kokalekua

Miramar Jauregia

Hizkuntzak

Euskara

Balio akademikoa

10 ordu

Antolakuntza Batzordea



Fundación
BBVA



Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Gipuzkoa



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

ZENTZA, UNIBERTSITATE ETA
BERRIKUNTZA SAILA
DEPARTAMENTO DE CIENCIA,
UNIVERSIDADES E INNOVACIÓN

Azalpena

Euskara eta euskal kultura nazioartean sustatu eta hedatzea du helburu Etxepare Euskal Institutuak. Gaur egun, 35 irakurletza ditu Euskal Herritik kanpoko unibertsitateetan, eta horietan euskara eta euskal kulturako 29 irakasle ari dira lanean. Horiez gain, 12 katedra ere sortu ditu beste horrenbeste unibertsitateetan. Ikastaro honek egungo irakurleen eta etorkizunekoek prestakuntza sendotu nahi du, eta horretarako, euskararen eta euskal kulturaren jakintza arlo ezberdinetako adituak gonbidatu ditugu, aurreko urteetako bide beretik. Hortik *Bikaintasuna Euskal Ikasketetan XV* izenburua.

Aurtengoan, ikastaroa bertatik bertara edo online jarraitu ahal izango da, eta gure jardunean euskara nola edo nondik kontatzen dugun galderari erantzuten saiatuko gara, moderno den horretatik kontatzen ote dugun ala tradizioa jota bakarrik. Modernoa al da euskara?

Helburuak

Nazioartean edo testuinguru eleanitzetan, oro har, euskara kontatzeko dugun moduari erreparatzea: zer eta nola kontatzen dugun.

Gaur egun euskararen esparruan sortu diren lanerako eta gogoetarako bide berriak ezagutzea.

Etorkizunera begira euskarak dituen erronken berri izatea.

Antolakuntza



Lankidetzak



Programa

2025-07-09

09:00 - 09:15	Erregistroa
09:15 - 09:30	Jardueraren zuzendaritzaren aurkezpena Monika Madinabeitia Medrano Etxepare Euskal Institutua - Euskara Sustatzeko eta Hedatzeko zuzendaria Jaime Otamendi Donostia Kultura - Zuzendaria Irene Larraza Aizpurua Etxepare Euskal Institutua - Zuzendaria
09:30 - 10:10	“Euskararen marka” Estitxu Garai Artetxe UPV/EHU - Bizkaiko Campuseko eta Komunikazioko Errektoreordea
10:10 - 10:50	“Hitanoa mundu zaharretik berrirako bidean” Beñat Muguruza Aseguinolaza UPV/EHU - Irakaslea
10:50 - 11:10	Atsedena
11:10 - 11:50	“Euskara adimen artifizialerako prest? “ Urtzi Odriozola Lizaso Codesyntax - Informatikaria
11:50 - 12:30	“Euskara bizirik dagoen ondarea” Arkaitz Olea Herrero San Telmo Museoa - Bitartekaritza arduraduna
12:30 - 12:45	Atsedena
12:45 - 13:45	Mahai ingurua: “Nola kontatu nahi dugu euskara?” Arkaitz Olea Herrero San Telmo Museoa - Bitartekaritza arduraduna Estitxu Garai Artetxe UPV/EHU - Irakaslea Beñat Muguruza Aseguinolaza UPV/EHU - Irakaslea Irene Larraza Aizpurua Etxepare Euskal Institutua - Zuzendaria Urtzi Odriozola Lizaso Codesyntax - Informatikaria
13:45 - 14:00	Itxiera Monika Madinabeitia Medrano Etxepare Euskal Institutua - Euskara Sustatzeko eta Hedatzeko zuzendaria Arkaitz Olea Herrero San Telmo Museoa - Bitartekaritza arduraduna

Zuzendaritza



Monika Madinabeitia Medrano

Etxepare Euskal Institutoa

Monika Madinabeitia irakasle titularra da Mondragon Unibertsitateko Humanitate eta Hezkuntza Fakultatean, Espainian. Bere ikerketa arlo nagusiak e/immigrazioa dira, Amerikako mendebaldeko euskal diaspora nabarmenduz.

Irakasleak



Estitxu Garai Artetxe

Euskal Herriko Unibertsitatea

Doktorea da Ikus Entzunezko Komunikazioan eta Publizitatean eta Euskal Herriko Unibertsitateko irakaslea. Aurretik, Publizitate eta Harreman Publikoetan lizentziatu zen da eta Gizarte Komunikazioa masterra egin zuen. Ikerlari Bisitaria izan da New York-eko unibertsitate publikoan eta Irlandan, Limerickeko Unibertsitatean. Bere ikerketa jarduna hizkuntza gutxituetan eta feminismoan oinarritu du; ikergai nagusiak publizitate elebiduna eta patriarkatuaren birsortze mekanismoak izan dira. Gaur egun, hizkuntza markagintza aztertzen dabiren taldea zuzentzen du. Berria Taldeko Administrazio Kontseiluko kide izan zen 2016-2020 epealdian. Gizarte mugimendu ezberdinetako partaide da eta analista politiko gisa ere aritzen da euskarazko komunikabideetan: Argia, Berria, ETB1, ETB2, Euskadi Irratia eta Hamaika TB, besteak beste. Horretaz gain, ibilbide profesionalean, enpresa eta erakunde publiko ezberdinen komunikazio-aholkulari gisa dihardu.



Irene Larraza Aizpurua

Etxepare Euskal Institutua

Komunikazio Zientzietan lizentziatua Nafarroako Unibertsitatean eta kulturaren eremuan ibilbide luzea eginga, Irene Larraza Aizpurua (Tolosa, 1970) erantzukizuneko lanpostuak bete izan ditu komunikazioaren eta kultur kudeaketaren eremuetan. Hasiara batean, Herri Irratian esatari eta erredaktore lanetan aritu zen hiru urtez. Ondoren, Donostiako Koldo Mitxelena Kulturuneko Sustapenaren eta Hedapenaren arduradun izan zen hiru urtez, eta zortzi urtez izan zen Syntorama musikarien ordezkaritza-agentziako Sustapenaren, Komunikazioaren eta Editorialaren arduradun. 2008 eta 2012 urte bitartean Tolosako Udalean garatu zuen bere ibilbide profesionala Kulturako Koordinatzaile eta Zuzendari gisa. 2012az geroztik, Etxepare Euskal Institutuaren taldeko kide da Larraza. Bertan, Komunikazio Arduraduna izan zen aurrena, eta 2016ko azaroaz geroztik Kulturaren Sustapen eta Hedapen Zuzendaria hurrena. 2018tik da Etxepare Euskal Institutuko zuzendaria.



Monika Madinabeitia Medrano

Etxepare Euskal Institutoa

Monika Madinabeitia irakasle titularra da Mondragon Unibertsitateko Humanitate eta Hezkuntza Fakultatean, Espainian. Bere ikerketa arlo nagusiak e/immigrazioa dira, Amerikako mendebaldeko euskal diaspora nabarmenduz.



Beñat Muguruza Aseguinolaza

UPV/EHU

Ingeles Filologian lizentziatu zen EHU. Azken urtea Fort Lewis College-n egin ondoren (Colorado, AEB), EHU Language Acquisition in Multilingual Settings (LAMS) masterra egin zuen. Doktorego-tesian ingelesaren presentzia aztertu zuen EHU, Jasone Cenoz eta Durk Gorterren zuzendaritzapean. Tartean, hiru hilabeteko egonaldia egin zuen Sabhal Mòr Ostaig gaeliko bidezko unibertsitatean (Eskozia). Mondragon Unibertsitatean urtebetez lan egin eta gero, Bortzirietako Euskara Mankomunitatean aritu zen euskara teknikari. 2016an Parisko Sorbona Unibertsitatean jardun zuen euskara irakurle, Etxepare Institutuaren eskutik. Orain EHU dabil irakasle eta ikertzaile, Euskal Hizkuntza eta Komunikazioa Sailean.



Urtzi Odriozola Lizaso

Alemaniko matematika industrialetako Fraunhofer institutuan lanean aritu eta ingenieritza informatikoan lizentziatua, Urtzi Odriozola (Zarautz - 1986) CodeSyntax enpresako kidea da gaur egun. Eibarren kokatutako enpresa hau software garapenean eta interneteko zerbitzuetan espezializatuta dago, bereziki euskararen presentzia teknologikoa sustatzen duten proiektuetan. Urtzik, ibilbide profesionala teknologia digitalen munduan garatu du, batez ere web garapenarekin, datu irekiekin edota software librearekin lotutako proiektuetan parte hartzen baitu. Teknologiaren aplikazio praktikoan eta tresna digitalen garapenean 12 urtetik gorako esperientzia du. Gaur egun, adimen artifizialeko garapen libreetan oinarritutako proiektuetan ere lanean ari da eta lehen itzultzaile neuronal librea, LibreTranslate, euskaraz kaleratzeko lanetan parte hartu du.



Arkaitz Olea Herrero

Humanitateetan lizentziaduna Mondragon Unibertsitatean, eta Sorkuntza eta Diseinuko graduduna Euskal Herriko Unibertsitatean. Bere lan ibilbidearen hastapenak kooperatiben eta euskalgintzaren arloan izan ziren, eta azken hamarkadan kultur kudeaketara bideratu du bere jarduna. 2014tik aurrera Bilboko Consonni arte ekoiztetxe eta argitaletxean aritu zen, nagusiki kudeaketa arloko lanak burutuz. 2019an berriz San Telmo Museora batu zen, aldi baterako erakusketen arduradun moduan. 2022tik aurrera Tabakalerako Programazio arloaren koordinazioan aritu zen bi urtez. Azkenik, 2024az geroztik San Telmo Museoan ari da berriro, oraingoan bitartekaritza arduradun moduan. Bere lana jarduera eta proiektuen arloan kokatzen da nagusiki, beste batzuen artean euskararen inguruko proiektuak barne hartzen dituena.



Jaime Otamendi

Jaime Otamendi Informazio Zientzietan lizentziatua da EHUan (1989). EITBn egin zuen ibilbide profesional luzea, bai irratian bai telebistan kazetari gisa (1989-2015), eta tarte horretan Albistegien Zuzendari ere izan zen (1999-2009). 2015etik Donostia Kultura erakundeko Zuzendari Kudeatzaile da, kultura kudeaketan eta politiketan ekarpen garrantzitsuak eginez.

Matrikula prezioak

AURREZ AURRE	2025-06-30 ARTE	2025-07-09 ARTE
Gazte tarifa	25,00 EUR	28,00 EUR
Orokorra	-	40,00 EUR
Matrikula murriztua orokorra	-	34,00 EUR
Matrikula exentzia	-	28,00 EUR
Euskaltegi edo autoikaskuntzarako zentro homologatatuko kide	-	34,00 EUR
Elkar	-	34,00 EUR

ONLINE ZUZENEAN	2025-06-30 ARTE	2025-07-09 ARTE
Gazte tarifa	25,00 EUR	28,00 EUR
Orokorra	-	40,00 EUR
Matrikula murriztua orokorra	-	34,00 EUR
Matrikula exentzia	-	28,00 EUR
Euskaltegi edo autoikaskuntzarako zentro homologatatuko kide	-	34,00 EUR
Elkar	-	34,00 EUR

Kokalekua

Miramar Jauregia

Mirakontxa pasealekua 48, 20007 Donostia

Gipuzkoa